



62

ZINEBI

ZINEBI NETWORKING 2020: Dokumentalen Sorgunea
III FORO PROFESIONAL DE CINE DOCUMENTAL DE BILBAO



zinebi.eus #zinebi62

ZINEBI NETWORKING 2020 DEIALDIA: Dokumentalen Sorgunea III FORO PROFESIONAL DE CINE DOCUMENTAL DE BILBAO

OINARRIAK ETA BALDINTZA OROKORRAK

1. OHAR OROKORRAK

Aurreko edizioetan bezala, ZINEBIk eta Euskal Produktoreen Elkarteak (EPE-APV) euskal ikus-entzuzkoen sektorea eta talentua babesten eta bultzatzen jarraituko dute, baita dinamizazioa sustatzen ere, eta, COVID-19aren pandemiak kolpatutako urte honetan, bertoko industria-egitura suspertzen ere.

Bilboko Dokumentalen eta Film Laburren Nazioarteko Jaialdiak eta Euskal Produktoreen Elkarteak (EPE-APV) ZINEBI NETWORKING 2020: *dokumentalen sorgunea* Bilboko Zinema Dokumentalaren III. Foro Profesionala aurkeztuko dute Euskal Telebista (ETB), Europa Creativa Desk MEDIA Euskadi eta Zineuskadi-ren elkarlanarekin. Proiektu honek euskal zinemaren sormen olatu berria bultzatu nahi du eta zinema berri honen ekoizpenaren aldeko apustua egin. Horretarako, gure helburua tokiko ikus-entzuzkoen egituraren dinamizazioan laguntzea da, zinemagintzaren arloko agente eta bertako zein nazioarteko instituzio desberdinen arteko elkarlana eta kooperazioa bultzatuz.

Proiektu dokumental sortzaile eta independenteak babesteko asmoz, *Networking*-a etorkizunean garapen artistiko eta profesionala lortzeko plataforma izan nahi du. Esperientzia, jakin-mina eta ardurak partekatu eta proiektu dokumental berriak garatzeko sinergiak sortuz.

ZINEBIren iritziz, aukera paregabea da gure gazte talentuek aholkularitza eskainiko dieten profesional eta adituekin harreman zuzena izan dezaten. Parte-hartzaileek haurengo mendoiak eta aholkuak jasoko dituzte proiektuak modu arrakastatsuenean garatua haizatuko. Aholkularitza, hausnarketa eta sormena garatzeko gunea izango da ZINEBI NETWORKING 2020. Horretarako, ekitaldi honek belaunaldi berrien zinema ekoizpena bultzatzen duten zuzendariekin, ekoizleekin, instituzioekin eta sektoreko beste hainbat agenterekin aurrez-aurreko topaketa dinamika izango du.

Jaialdiaren Zuzendaritzak eta kanpo hautapen-batzorde batek aurkeztutako proiektu guztien artean zortzi (gehien jota) aukeratuko ditu. Hautapena egiteko, batzordeak ideia, proposamen estetiko, bide-

ragarritasuna eta proiektuek gauzatzeko dituzten aukerak kontuan hartuko ditu. Gainera, parte-hartzaileek sektoreko profesional baten babesa edukiko dute aurkezpen publikoa egin baino lehen, banakako tutoretza bat izango dutelarik.

Jaialdiak sektoreko profesionalak deituko ditu epai-mahaikide izateko. Hauek, zuzendari eta ekoizleen aholkulari bezala jardungo dute aurkezpenen ostean eta geroago egingo diren aurrez-aurreko bileretan. Epai-mahaia azaroaren 20an Arriaga Antzokian ospatuko den itxiera galan emango dio saria irabazleari. Epaitza apelaezina izango da.

Irabazleak 10.000 euroko saria eta aholkularitza profesionala jasoko du ikus-entzunezko proiektua egia bihurtu dadin.

Izena emateko epea irailaren 17an hasi eta urriaren 12an amaituko da, biak barne.

2. BETE BEHARREKO BALDINTZAK

1. Networking-a ekoizle eta zuzendari euskaldunei zuzenduta dago (garapen fase aurreratuan edo ekoizpenean dauden dokumental luzeak)
2. Proiektu bakarra aurkeztu daiteke zuzendari bakoitzeko.
3. Ez da bukatuta dagoen dokumentalik onartuko.
4. Proposamenek orijinalak izan behar dute, hirugarrenei plagiatu edo usurpatu gabekoak.
5. Deialdi honetan parte hartu nahi dutenek [web formularioaren](#) bitartez izena emango dute, baldintza guztien onarpena adieraziz eta datu pertsonalak zehaztuz, NAN, jaiotze data eta posta elektronikoa, besteak beste.
6. Formularioa bete eta bidali ostean, eskatutako dokumentazioa festival@zinebi.eus helbide elektronikora bidaliko da.
7. Bidali beharreko dokumentazioa PDF bakar batean bilduko da (*arekin markatutakoak derrigorezkoak dira)
 - Fitxa tekniko eta artistikoa *
 - Intentzio-oharra*
 - Proiektuaren azalpen-memoria *
 - Gidoiaren sinopsia*
 - Gidoia
 - Proposamen estetikoa*
 - Zuzendariaren biografia eta filmografia *
 - Aurretik egindako lanen link-ak*
 - Garapen fasea*
 - Aurrekontua*
 - Kronograma*
 - Ekoizpen-plana
 - Finantzazio-plana*
 - Proiektuaren teaserra (egotekotan). Gomendagarria da gutxienez 4 minutuko teaserra duen esteka atxikitzea. Publikora irekita ez dagoen ikus-entzunezko materiala bakarrik hartuko da kontuan, hau da, pasahitz pribatua duten estekak.
8. Parte-hartzaileek Networking programan antolatuko diren ekintza guztietan parte hartzeko bete-beharra dute. Posible izango ez balitz, antolakuntzak beste proiektu bat gonbidatzeko eskubidea izango du.
9. Parte-hartzaileek erakundeari proiektuari buruzko informazioa eta promozio-materialak eman-goto dizkiote dagokion katalogoa, esku-programa, web orrialdea eta sare sozialetan erabiltzeko, eta hauen argitalpena onartzen dute.

3. ZINEBI NETWORKING 2020 SARIA

ZINEBIk 10.000€-ko saria (zergak barne) proiektua erregistratuta daukan ekoizpen-etxeari ordainduko dio.

ETB euskal talentua bultzatzeko helburuarekin, elkarlanean arituko da ZINEBI NETWORKING 2020 proiektuan. Proiektu irabazleak bere garapenerako 5.000 euro jasoko ditu ETBren aldetik. Honen truke, ekoizpena aurrera eramaten bada, ekoizleak, ZINEBI-ren bidez, lanaren 3 pase ETB-ri laga egitera konprometitzen da. Ordea, ekoizpena amaitzean, ekarpena handiagoa izan daiteke balorazio batzordeak horrela erabakitzen badu.

4. HAUTATUTAKO FILMEK BETE BEHARREKO BETEKIZUNAK

Hautatutako **proiektu finalistek** ZINEBI NETWORKING 2020: Dokumentalen Sorgunearen eta ZINEBIren logoak sartu beharko dituzte amaitutako filmeko kredituetan, hau zehaztuta:

ZINEBI-Bilboko Dokumentalen eta Film Laburren Nazioarteko Jaialdiak eta Euskal Produktoreen Elkar-teak (EPE-APV), Euskal Telebistarekin (ETB), Europa Creativa Desk MEDIA Euskadi-rekin eta Zineuskadi-rekin lankidetzan antolatzen duten ZINEBI NETWORKING 2020, Dokumentalen sorgunea zeneko Foro Profesionaleko proiektu hautatua.

Proyecto seleccionado en el Foro Profesional ZINEBI NETWORKING 2020: dokumentalensorgunea, organizado por ZINEBI-Festival Internacional de Cine Documental y Cortometraje de Bilbao y la Asociación de Productores Vascos (EPE-APV) y en colaboración con Euskal Telebista (ETB), Europa Creativa Desk MEDIA Euskadi y Zineuskadi.

Selected project at the ZINEBI NETWORKING 2020 Professional Forum: dokumentalen sorgunea, organised by ZINEBI- International Festival of Documentary and Short Film of Bilbao and the Association of Basque Producers (EPE-APV) in collaboration with Euskal Telebista (ETB), Europa Creativa Desk MEDIA Euskadi y Zineuskadi.

Logo hori publizitate-komunikazio guztian (kartela, *presskit*-a, sare sozialak, web-orria,...) ere agertuko da.

Halaber, foro profesionalaren **proiektu irabazleak**, haren hasieran hau iragarri beharko du:

ZINEBI-Bilboko Dokumentalen eta Film Laburren Nazioarteko Jaialdiak eta Euskal Produktoreen Elkar-teak (EPE-APV), Euskal Telebistarekin (ETB), Europa Creativa Desk MEDIA Euskadi-rekin eta Zineuskadi-rekin lankidetzan antolatzen duten ZINEBI NETWORKING 2020: Dokumentalen sorgunea izeneko Foro Profesionaleko proiektu irabazlea.

The winning project at the ZINEBI NETWORKING 2020 Professional Forum: dokumentalen sorgunea, organised by ZINEBI- International Festival of Documentary and Short Film of Bilbao and the Association of Basque Producers (EPE-APV) in collaboration with Euskal Telebista (ETB), Europa Creativa Desk MEDIA Euskadi and Zineuskadi.

Proyecto ganador en el Foro Profesional ZINEBI NETWORKING 2019: dokumentalensorgunea, organizado por ZINEBI-Festival Internacional de Cine Documental y Cortometraje de Bilbao y la Asociación de Productores Vascos (EPE-APV) y en colaboración con Euskal Telebista (ETB), Europa Creativa Desk MEDIA Euskadi y Zineuskadi.

Hautatutako proiektu guztiek oinarriak onartzeko akordio bat sinatuko dute behin azken hautaketa iragarri ondoren.

Oinarri horiek interpretatzean sor daitezkeen zalantzak eta horiek aplikatzearen ondorioz sor daitezkeen gatazkak, Zinemaldiaren antolatzaileek ebatziko dituzte. Era berean, Jaialdiaren antolatzaileek eskubidea izango dute ezinbestek bultzatuta oinarri eta agindu horiei salbuespen puntualak ezartzeko.